

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Filmotekak hiru pelikula-lata jaso ditu parerik gabeko 1924ko filmen atalekin

Robert Reinert alemaniarraren "Die vier letzten Sekunden des Quidam Uhl" pelikularen bobina bat eta Charles Giblyn-en "The Price of a Party" pelikularen bi zati dira.

Martes, 27 de mayo de 2014

Nafarroako Filmotekak 1924ko bi filmen zati paregabeen hiru pelikula-lata ditu, Robert Reinert zuzendari alemaniarraren *Die vier letzten Sekunden des Quidam Uhl* eta Charles Giblyn zuzendari estatubatuarraren *The Price of a Party* pelikulen zatiak dira.

Javier Odérizek eduki ezezaguneko 35 milimetroko hiru pelikula-lata bidali ditu berriki Nafarroako Filmotekara. Gordetzaileak bere aitarengandik jaso zuen materiala, hau da, izen bereko

ikus-entzunezko enpresariarengandik (Nafarroako lehen telebista-kanalaren bultzatzailea), eta edukia zehazki zer zen jakin gabe eman zituen. Ikerketa-lan zorrotza egin ondoren, bobinetako bat Robert Reinert zuzendari alemaniarraren 1924ko *Die vier letzten Sekunden des Quidam Uhl* zela jakin zen, eta beste bi bobinak Charles Giblyn zuzendari estatubatuarraren urte bereko *The Price of a Party* filmaren lehen eta bigarren zatiak.

Materiala identifikatu ondoren, Nafarroako Filmoteka munduko film-artxibo garrantzitsuenekin jarri zen harremanetan eta, orain arte, horietako batean ere ez dauzkate bobina horiek. Filmmuseum München museoa pelikula alemaniarraren lehen, laugarren eta bosgarren zatiak besterik ez dituzte. Nafarroan agertu dena bigarren zatia da, beraz, filma osatzen lagunduko du. Bertako Stefan Droessler zuzendariarekin jarri dira harremanetan film-ondare unibertsala hobetzeko, Film Artxiboen Nazioarteko Federazioak jardun onen kodean gomendatzen duen bezala. Film amerikarrari dagokionez, Washingtongo kongresuko liburutegiak baieztatu du munduan ez dagoela bobina horien beste kopiarik eta, beraz, kopia bakarrak direla.



"The Price of a Party" pelikularen fotogramak.

Materialak nitratozkoak dira (zeluloidea), oso errekorrak. Horren ondorioz mundu osoko zinema-aretoetan hainbat sute izan ziren XX. mendeko lehen hamarkadetan, hortaz, berrogeiko hamarkadaren amaieran, azetatozkoak egin zituzten (zelulosazko triazetatoa). Nitratoaren hauskortasunak, arriskuak eta zinema mutua iraganekoa zela zegoen iritziak 1930 baino lehenagoko film ugari deuseztatzea ekarri zuten. Hori dela-eta, filmen % 20k biziraun dutela kalkulatu da (Espainiaren kasuan, kalkulatu da filmatu zenaren % 5 bakarrik dagoela salbu). Nitratoak tratamendu-baldintza bereziak behar ditu; horregatik ezinbestekoa da materiala identifikatzea, behar ez bezala manipulatu gero, hau da, temperatura handiko tokietan edo eguzkitan utziz gero, suak hartu baitezake. Euskarriaren ezegonkortasunak eta bat-bateko errekontzak sute bat baino gehiago eragin ditu film-artxiboetan. Halako materiala biltegi berezietan gorde ohi da, horregatik, Nafarroako Filmotekak behar bezala zaintzeko toki egokia duen beste filmotekaren batera eramango ditu.

Zuzendariak

Robert Reinert (1872-1928) Vienan jaio zen, baina 1900 aldera Munichera joan zen bizitzera. Hainbat eleberri idatzi zituen, eta *Homunculus* (1916) pelikularen gidoiaren lortu zuen arrakastak *Opium* edo *Nerven* bezalako pelikulak zuzentzera animatu zuen. Azken pelikula hori zinema espresionista alemanaren aitzindaritzat jotzen da.

Charles Giblyn (Watertown, Nueva York, 1871ko irailaren 6a -- 1934ko martxoaren 14a) zuzendari eta aktore estatubatuarra izan zen, zinema mutuaren garaian aktibo egon zena. *An Indian Legend* pelikula zuzendu zuen 1912an, Broncho Film Company-ren western pelikula bat, Grace Cunard eta Francis Ford aktoreekin. Denera 98 film zuzendu zituen 1912tik 1927ra, eta 26tan aktore gisa aritu zen 1914 eta 1934 artean. Gainera, zazpi pelikularen gidoiak idatzi zuen. Aktore jardun zen azken pelikula, *This Side of Heaven*, 1934ko otsailaren 2an estreinatu zen, hau da, hil eta hilabete eta erdira, Los Angelesen, Kalifornian. Hollywood-eko Hollywood Forever hilerrian lurperatu zuten. Giblyn izan zen Motion Picture Directors Association elkartearen sortzaileetako bat.



Robert Reinerten Die vier letzten Sekunden des Quidam Uhl.